



Udal hezkuntza kontseiluak. Haur eta nerabeen hezkuntza komunitariorako aukerak



Uda Ikastaro honek, ekitateari eta aukera berdintasunari dagokienez eta haurren eta nerabeen garapenari begira, udalek hezkuntza komunitarioko ekosistemak finkatzeko zein aukera dituzten sakonki aztertutako nahi du.

Uzt. 01 - Uzt. 02 2025

Kod. G15-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 01 - Uzt. 02 2025

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

2023ko EAEko Hezkuntzaren Legeak aukera ematen die udalei Udal Hezkuntza Kontseiluak martxan jartzeko, hezkuntza proiektu komunitarioak taxutu eta bultzatzeko helburuarekin (60. artikulua). Horrela, esanahi berria atxikitzen zaie 1988tik indarrean dauden Udal Eskola Kontseiluei.

Izen aldaketa ez da nolanahikoa. Hezkuntzaren kontzeptua aldatuz joan da gizartearekin batera, eta eskolako inguruneaz harago joan da haurren eskubideen alde indar gehiagoz egiteko; hezkuntzaren ikuspegitik, eremu emankorra, zalantzarik gabe. Aldaketa hori aukera bat izan daiteke legeak ezarritako gizarte kohesio eta inklusioa bultzatzeko, eta baita kolektibo horren guztiaren ongizatea eta garapena bermatzen dituzten ekintzak gauzatzeko ere, 2024ko EAEko Haur eta Nerabeen Legeak dioenaren bidetik.

Uda Ikastaro honek, ekitateari eta aukera berdintasunari dagokienez eta haurren eta nerabeen garapenari begira, udalek hezkuntza komunitarioko ekosistemak finkatzeko zein aukera dituzten sakonki aztertu nahi du. Gai horren inguruko alderdi teorikoetan, juridikoetan eta politikoetan jarriko da arreta, baita inspirazio iturri izan daitezkeen esperientzien azterketan ere. UdalHez proiektuaren berri ere emango da: proiektua EAEko sei udalerritan garatzen ari da, modu esperimentalean, eta Kontseilu horien eta haien hezkuntza proiektu komunitarioen konfigurazioari oinarri enpirikoa eman nahi zaio, etorkizunean beste udalerrri batzuentzat eredu izan daitezkeen kasu praktiko gisa.

Helburuak

Udalek hezkuntzan jarduteko marko juridikoa zein den argitzea.

Hezkuntza komunitarioaren oinarri teorikoak eta metodologikoak finkatzea.

Eskubideen argitan, haurren eta nerabeen ongizatea eta garapena zertan datzan zehaztea.

EAEEn udal mailako hezkuntza komunitarioko esperientziak ezagutzea.

Lankidetzak



Programa

2025-07-01

09:15 - 09:30	Erregistroa / Registro
09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Karmele Artetxe Sanchez UPV/EHU - EHU-ko irakaslea eta UdalHez-en ikerlaria Andrea Khalfaoui Larrañaga UPV/EHU - Irakaslea eta UdalHez-en ikerlaria
09:45 - 11:15	“Conceptualización de la Educación Comunitaria: sentido e implicaciones metodológicas” Alberto Jauregi Virto UPNA - Irakaslea
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 13:30	Mahai ingurua: “Horizontes políticos: cómo apoyar y consolidar propuestas educativas comunitarias desde la política” Marta Domenéch Gutiérrez Alianza Educació 360º - Eragilea Amalia Mercedes Cuartero Gobierno de Navarra - Subdirección de Infancia, Adolescencia y Familia
15:30 - 17:30	Mahai ingurua: “Diálogos que nos acercan a las experiencias de educación comunitaria, presente, pasado, futuro “ Iruntze Rubenach Izura SAPC Antsoain Landatuz. - Trabajadora social Francesc Balcells i Teixidò Lluís Carol Andrès Saioa Arregui Olivenza SAPC Antsoain Landatuz - Psicóloga

2025-07-02

09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Idoia Fernández Fernández UPV/EHU - Irakaslea
09:45 - 10:30	“Udal Hezkuntza Kontseiluen marko juridikoa: Euskal Herriko errealitatea “ Maite Zelaia Garagarza UPV/EHU - Irakaslea / Jurista Dunia Marinas Suárez UPV/EHU - Irakaslea / Jurista
10:30 - 11:15	“Zein da udalgintzak hezkuntzan egin duen bidea? EAEko esperientzien analisisa” Alba Madinabeitia Ezkurra UPV/EHU - Irakaslea eta UdalHez-en ikertzailea
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 13:15	Mahai ingurua: “Udal hezkuntza kontseiluen hazien potentziala EAEn “ Mikel Juaristi Izaguirre Gobierno Vasco - Director para la Diversidad e Inclusión Karmele Artetxe Sanchez UPV/EHU - EHU-ko irakaslea eta UdalHez-en ikerlari nagusia
13:15 - 13:30	Itxiera

Zuzendaritza



Andrea Khalfaoui Larrañaga

UPV/EHU, Irakaslea

Andrea Khalfaoui Deustuko Unibertsitatean doktoratu zen 2020ean, eta 2023arte Edimburgoko Unibertsitatean (Moray House School of Education and Sport) posdoc ikerlari gisa lan egin du Eusko Jaurlaritzaren posdoc programaren barnean. ikerketa proiektu konpetitiboetan parte hartu du estatu mailan (I+D IMP-EXIT, I+D INTER-ACT, I+D ROM21), baita nazioarteko mailan ere, horien artean Horizon Europe programako SCIERARLY (2022-2025) proiektua nabarmentzen da, non koordinatzaile zientifikoa izan den, eta haur hezkuntzako lan taldearen koordinatzailea. SCIREARLY-k politika eta praktika arrakastatsuak identifikatu eta transferitzea bilatzen du Europa mailan, eta 10 herrialde hartzen dute parte. Andrearen ikerketa lerroa pertsona guztien arrakasta akademiko eta ongizate sozialan zentratu da, bai eta eskola eta familien arteko harremanetan, batez ere komunitate ijito eta migratuekin. Ekarpen hauek aldizkari zientifiko garrantzitsuenetan argitaratu ditu, hala nola Learning, Culture and Social Interaction, edota Journal of Language, Identity & Education,(besteak beste), bai eta hezkuntza zientzian punta-puntako nazioarteko kongresuetan (AERA, ECER, EARLI, EECERA eta WERA, besteak beste)

Irakasleak



Saioa Arregui Olivenza



Karmele Artetxe Sanchez

UPV/EHU



Francesc Balcells i Teixidò



Lluís Carol Andrès





Marta Domenéch Gutiérrez



Idoia Fernández Fernández

UPV/EHU, Irakaslea

Idoia Fernández Hezkuntzaren Zientzien Saileko irakasle titularra da. UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuko (HELAZ) zuzendaria (2010-2017) izan da, baita , Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Errektoreordea (2017-2021) ere. Berrikuntza, garapen eta ikerketa proiektudesberdinen buru izan da goi mailako hezkuntzako irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren arloan. International Society for the Scholarship of Teaching and Learning (ISSOLT) elkarteko Europarako lehendakariorde izan da 2016-2017an. 2014tik Unibertsitate Irakaskuntzako Estatuko Sareko (REDU) kidea da, baita izen bereko aldizkariko argitalpen taldeko kidea ere. Une honetan Unibasq Kalitate Agentziako Gobernu Kontseiluko kidea da.



Alberto Jauregi Virto

UPNA





Andrea Khalfaoui Larrañaga

UPV/EHU, Irakaslea

Andrea Khalfaoui Deustuko Unibertsitatean doktoratu zen 2020ean, eta 2023arte Edimburgoko Unibertsitatean (Moray House School of Education and Sport) posdoc ikerlari gisa lan egin du Eusko Jaurlaritzaren posdoc programaren barnean. ikerketa proiektu konpetitiboetan parte hartu du estatu mailan (I+D IMP-EXIT, I+D INTER-ACT, I+D ROM21), baita nazioarteko mailan ere, horien artean Horizon Europe programako SCIERARLY (2022-2025) proiektua nabarmentzen da, non koordinatzaile zientifikoa izan den, eta haur hezkuntzako lan taldearen koordinatzailea. SCIREARLY-k politika eta praktika arrakastatsuak identifikatu eta transferitzea bilatzen du Europa mailan, eta 10 herrialde hartzen dute parte. Andrearen ikerketa lerroa pertsona guztien arrakasta akademiko eta ongizate sozialan zentratu da, bai eta eskola eta familien arteko harremanetan, batez ere komunitate ijito eta migratuekin. Ekarpen hauek aldizkari zientifiko garrantzitsuenetan argitaratu ditu, hala nola Learning, Culture and Social Interaction, edota Journal of Language, Identity & Education,(besteak beste), bai eta hezkuntza zientzian punta-puntako nazioarteko kongresuetan (AERA, ECER, EARLI, EECERA eta WERA, besteak beste)



Alba Madinabeitia Ezkurra

UPV/EHU

Pedagogian doktorea eta Hezkuntza Zientziak saileko irakaslea da (UPV/EHU). “IkasGaraia: Hezkuntza, kultura eta garapen iraunkorra” ikerketa taldeko kidea da eta berrikuntza, garapen eta ikerketa proiektu desberdinetan parte hartu du goi mailako hezkuntzako irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren arloan. Azpimarratzekoak dira Unibertsitate Sistemak euskal gizartearen eraldaketari egindako ekarpenaren azterketa, eta gaur egun, Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzan zuzentzen ari den koEHSioa ikerketa-proiektua, Euskal Hezkuntza Sistemaren azterketa sakon eta partekatu egin eta proposamen eraldatzaileak erdiesteko baldintzak sortzeko egitasmoa.



Dunia Marinas Suárez

UPV/EHU

Konstituzio Zuzenbidea eta Europar Batasuneko Zuzenbideko Irakaslea (UPV/EHU)



Iruntze Rubenach Izura



Maite Zelaia Garagarza

UPV/EHU, Facultad de Derecho. Departamento de Derecho Administrativo, Constitucional y Filosofía del Derecho

Profesora agregada de Derecho Constitucional y de la Unión Europea en la UPV/EHU. Vicerrectora de Estudiantes, Empleo y Responsabilidad Social de la Universidad del País Vasco desde enero 2013 a enero 2017. Actividad investigadora ligada a las siguientes líneas de investigación: 1) El ensamblaje del Estado de las autonomías en la Unión Europea. 2) Los parlamentos, el sistema electoral y el Estado constitucional de Derecho. 3) La aplicación de la CDFUE y, en concreto, la (des)igualdad de género y la violencia contra la mujer. Actualmente: miembro del Grupo de Investigación Consolidado del Sistema Universitario Vasco sobre "Derechos Fundamentales y Unión Europea" EUROPAGUNE, IT 1455-22 (2022-2025); PI MICINN Ref PID2021-128335OB-I00 (2022-2025) "La aplicación eficaz de la Carta de Derechos Fundamentales de la UE: el respeto de los principios y valores europeos"; PI MICINN Ref PID2022- 136707NB-I00 (2023-2026) "Populismo y Poder Judicial: los retos para el Estado constitucional de Derecho".

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-07-01 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzioa	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	74,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	74,00 EUR
Elkar	74,00 EUR

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia